

Zuiako liburutegia lekuz aldatzeko auzolanean 50 lagunek parte hartuko du

Zuiako liburutegia lekuz aldatzeko auzolana antolatu dute bihar, abenduaren 21ean, eta 50 bat lagunek parte hartzeko izena eman dute. Zuiako Udalak legealdi honetan egin duen lehenengo auzolana izango da.

Helburua liburutegia lekuz aldatzea da, egun dagoen udaletxearen beheko solairutik Bea Murgia etxera, bertan egongo delako hemendik aurrera. Horretarako, apalak, altzariak eta egun Udal Liburutegiak eskaintzen dituen 200 kutxa liburuz beteta mugitu behar dira.

Halaber, Zuiako alkate Unai Gutierrez Urkizak azpimarratu duenez, «horrelako ekimenekin herritarren arteko harremanak estutzea eta haraneratzat eta bertako herritarrentzan probetxuzkoak izango diren lanak egitea da» auzolanaren beste helburu bat. Auzolan honetan parte hartzeko izena emateko epea zabaldu zen bertan egongo diren guztiek aseguruia izango dutelako. Hitzordua udaletxean da, goizeko 9:00etan, eta amaitu ostean ondo irabazitako hamarretakoa egingo dute.